



Sareen sareak
Euskadiko Hirugarren Sektorre Soziala
Tercer Sector Social de Euskadi



Herritar aktibo eta solidarioak aldarrikatu ditu Euskadik Hirugarren Sektorre Sozialaren egunean

- **Sareen Sareak Euskadiko Hirugarren Sektorre Sozialaren Legearen zortzigarren urteurrena ospatu du, Iñigo Urkullu lehendakaria eta hainbat erakunde sozial bildu dituen ekitaldian.**
- **Elkarteak Gonzalo Rodríguez Aguirregoitiari eman dio aurtengo Sareen Saria, funtsezko figura izan dena Euskadiko Hirugarren Sektorre Sozialaren garapenean, gobernantza eta erakunde desberdinen arteko sare-lana sustatuz.**

Bilbo, 2024ko maiatzak 10. Maiatzaren 12an, Euskadiko Hirugarren Sektorre Sozialaren Eguna izango da. Hori ospatzeko, gaur, [Sareen Sareak](#), sektoreko sareak eta erakundeak batzen dituen elkarteak, ekitaldia egin du Bilboko Itsasmuseumean. Ekimenak 2016ko maiatzaren 12ko 6/2016 Legea indarrean sartu izana oroitzen du. Lege horrek Euskadiko hirugarren sektorre sozialean inflexio-puntua markatu zuen.

Ekitaldiaren hasieran, **Pablo Moratalla Sareen Sareko presidenteordeak** ongietorria emateko hitzaldian gogorarazi duenez, "beharrezkoa da akordio politiko, sozial eta instituzional handiak eraikitzea, gizartearen eta bereziki antolatutako gizarte zibilaren partaidetza eta atxikimendua lortzea".

Sareen Sareko presidenteak elkarrizketa zibila, **erakunde publikoen eta Hirugarren Sektorre Sozialaren arteko lankidetzeta eta elkarlana indartzen jarraitzeko beharra** ere azpimarratu du. Gizarte-erakundeen iraunkortasunari dagokionez, Moratallak adierazi du "Hirugarren Sektorre Sozialak finantzaketa-esparru egonkorra, nahikoa, bermatua eta sendoa behar duela euskal eremuko eta gizarte-onura aitortua duten sare eta erakunde sozialentzat".

Ekitaldian **Iñigo Urkullu lehendakariak parte hartu du**, eta orain zortzi urte onartutako Euskadiko Hirugarren Sektorre Sozialaren Legearen indarraldiari balioa eman dio. "Sektoreari berariazko aintzatespena eta nortasun propioa eta bereizia ematea lortu duen mugarria da", nabarmendu du. "Zortzi urte geroago, sektorea hazi eta garatu egin da, euskal gizarteak berak egin duen moduan", gaineratu du lehendakariak.

Sareen Saria

Hirugarren Sektorre Sozialaren eguna **Euskadi solidarioagoa, kohesionatuagoa eta sozialki inklusiboagoa eraikitzeko konpromisoa izan duten eta horretarako lan egin duten pertsonen ibilbidea aitortzeko unea ere bada.** Aitortza hori egiteko, Sareen Sareak Bizkaiko Caritaseko **Gonzalo Rodríguez Aguirregoitiari** eman dio aurtengo Sareen Saria.



Sareen sarea

Euskadiko Hirugarren Sektorre Soziala
Tercer Sector Social de Euskadi



Bere ibilbidean, Gonzalo Rodríguez funtsezko figura izan da Euskadiko Hirugarren Sektorre Sozialaren garapenean, gobernantza eta erakunde desberdinen arteko sare-lana sustatuz. Elkarrizketa Zibilerako Mahaia sortzeko eta abian jartzeko dinamizatzaileetako bat izan zen. Mahai horrek Eusko Jaurlaritzaren eta Hirugarren Sektorre Sozialaren arteko elkarrizketa erraztu nahi du, politika publikoen diseinua eta betearazpena hobetzeko.

Boluntariotza gaztea

Ekitaldia amaitzeko, Euskadiko Hirugarren Sektorre Sozialaren boluntariotza gazteari buruzko mahai-ingurua egin da. **Leire Ortiz de Zarate BizkaiaGara**ko koordinatzaileak moderatutako solasaldian, hainbat gizarte-erakundetako boluntarioen esperientziak entzun ahal izan dira. Zehazki, SOS Arrazakeriako Jaione Peláezek, Aspanovaseko Kristina Picardek eta Euskalerriko Eskautak elkarteko Inés Gutiérrezrek boluntariotzaren eta horren praktika berrien inguruan duten ikuspegia eta esperientziak azaldu dituzte.

Azken urteetan **boluntariotzara batu den pertsona kopuruak gora egin duela** nabarmendu du Sareen Sareak, baita gazteen artean ere. "Datuek adierazten dutenez, gazte konprometituak ditugu, parte hartzeko gogoia dutenak eta boluntariotzak gorpuzten duen herritartasun aktibo, solidario eta antolatuaren ereduari erantzuten diotenak". Euskadiko Hirugarren Sektorre Sozialetik azpimarratu dutenez, **boluntariotzak erakundeen oinarri soziala indartzen du**, eta erakusten du "erronka eta behar sozial berrien aurrean, gizarte zibila aktibatu egiten dela eta beste pertsona batzueni bere ekarpena gehitzen diela ariketa kolektibo batean".

Aldaketa eraikitzen

Aurtengo kanpainaren leloarekin **"Aldaketa eraikitzen"**, Sareen Sareak eraldaketa sozialaren alde lanean jarraitzeko beharra aldarrikatu du, Euskadi anitzagoa, inklusiboagoa eta solidarioagoa eraikiz. Ekitaldian, gizartearen eraldaketarako piezez betetako mural bat aurkeztu da, joan den apirilean Donostian ospatutako jarduera kolektibo batean herritarrekin batera egindakoa. Lehendakariak eta ekitaldian parte hartu duten gainerako pertsonak horma irudian ipini ahal izan dituzte beren piezak, aldaketa eraikitzeko asmoarekin bat eginez. "Pieza horiek elkartasun kolektiboa eta egungo eta etorkizuneko erronkei aurre egingo dien aldaketa sozialaren aldeko konpromiso irmoa adierazten dute".

Euskadiko Hirugarren Sektorre Soziala eta Sareen Sarea

Hirugarren Sektorre Soziala **irabazi-asmorik gabeko herri-ekimeneko erakundeek osatzen dute** eta helburua da gizarteratzea eta zaurgarritasuneko edo bazterkeriako, babesgabetasuneko, desgaitasuneko eta/edo mendekotasuneko egoerak bizi dituzten pertsonen, familien, kolektiboen eta komunitateen eskubideak modu eragingarrian erabili ahal izaten bultzatzea.



Sareen sarea

Euskadiko Hirugarren Sektorre Soziala
Tercer Sector Social de Euskadi



Egun, **4.200 erakunde baino gehiagok osatzen dute, 45.000 lanpostutik gora sortzen ditu, 170.000 boluntario inguru daude eta Euskadiko % 2,4ko BPGren¹ baliokidea den bolumena kudeatzen du.**

Sareen Sarea elkartea 2014an sortu zen eta Euskadiko Hirugarren Sektorre Sozialeko 17 erakunde-sare biltzen ditu. Horiek guztiak hainbat esparru jorratzen dute: desgaitasuna, gizarteratzea, familia, adinekoak, haurrak, etorkinak, enplegurako zentro bereziak, ekonomia soziala, lan-munduratzeko enpresak edo garapenerako laguntza.

“Gizartea bidezkoagoa eta solidarioagoa, kohesionatuagoa eta parte-hartzaileagoa lortzeko egiten dugu lan. Gizarte bidezkoagoa lortzeko proposamenak eta aukerak eraiki nahi ditugu elkarlanean”, azaldu dute Sareen Saretik.

INFORMAZIO GEHIAGORAKO

Jon Txarroalde Antolín

688 729 340

komunikazioa@sareensarea.eu

¹2023ko Barometroaren Txostena. *Hirugarren Sektorre Sozialaren Euskal Behatokia*. 2023ko abendua.